

HERNANIK kronika

2003 urtea
Otsailak 26
Asteazkena
Alea: 704
www.hkronika.com

Euskaltzaindiak eta Udalak Agustin Kardaberaz idazle eta predikari hernaniarra omenduko dute bihar

■ Patxi Altunak emango du Agustin Kardaberazen inguruko hitzaldia ■ Bihar, 19:00etan, Udaletxean.

AGUSTIN Kardaberaz jaio zela 300 urte bete dira aurten, eta Euskaltzaindiak *Kardaberaz urtea* deitu du. Zein ekitaldi egingo dituzten azaltzeko prentsurrekoeman zuten astelehenean Biterin, Mertxe Etxeberria Alkateak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiako idazkari orde eta gerenteak.

Lehenengo ekitaldia bihar izango da Hernanin, 19:00etan, Udaletxean. Patxi Altunak

emango du Agustin Kardaberaz bizitzari buruzko hitzaldia. Ostirala eta larunbatean ere izango dira Kardaberazi lotutako ekitaldiak Hernanin, baina, Euskaltzaindia barrurako. Hauez gain, Kardaberaz inguruan ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa badu Euskaltzaindiak aurten. Oraingoz zehaztua: azaroaren 27 eta 28an Deustuko Unibertsitateko Donostiako kanpusean jardunaldiak egindo dituzte:

Kardaberaz eta hizkuntza eta Kardaberaz eta erretorika.

Idazle eta hiztun haundiak

Kardaberaz Hernanin jaio zen 1703ko abenduaren 28an eta Iruñean eta Valladoliden egin zituen filosofia ikasketak. Ondoren Jesusen Lagundian sartu zen 1721ean eta apaiz egin zen 26 urterekin. 1736an Loiolara joan zen bizitzera eta bertatik Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietara joaten zen pre-

dikari. Hizlari abila eta idazle ona juzkatzen dute Kardaberaz eta Euskal Herri osoan egin zen famatu garai hartan. Erliejo gaietaz idatzi zuen asko, baina, agian bere liburu interesarriena *Euskararen berri onak* obra da.

Egunkariaren alde

Prentsurrekoan Etxeberriak eta Lizundiak Egunkariaren kontrako operazioa eta atxilotuen egoera salatu zuten. □

Udaletxeak Plenoa egingo du gaur

UDALAK Plenoa egingo du gaur arratsaldean eta bertan 11 puntu tratatuko dira. Besteak beste: Ongintza Patronatuako berrantolaketa, Udaletxe barruko emplegu-plana, animalia arriskutsuak edukitzeari ordaindu beharreko tasa, Udaletxeko hizkuntza irizpideak. Herriko bi ingurutako Arau Subsidiarioak aldatzea ere aztertuko da, eta beste zenbait puntu ere bai. Plenoa 20:00etan izango da. □

AGENDA 21 PLANA


Auzo Elkarteekin bilera gaur Biterin

AGENDA 21 Planak Hernaniri buruzko estudio orokor bat egin du, eta herriko elkartea eta erakundeetako azaltzeko bilerak egiten ari da, sektoreka. Gaur arratsaldean auzo elkartearen txanda da, eta bihar 27an, profesional elkarteari, industriak eta sindikatuak daude deituta. Bilerak 19:00etan dira, Biterin. □

EUSKALDUNON EGUNKARIA-REN KONTRAKO OPERAZIOA

Pello Zubiriak inkomunikatuta segitzen du Madrilen, eta familiak ez daki osasunez benetan nola dagoen

■ Gregorio Marañon ospitaleko medikuek atzo gauean eman zioten Zubiriari deklaratzeko baimena ■ Gaur ere 20:00etan kontzentrazioa, plazan ■ 20:30etan Egunkariako batzordea sortzeko bilera, AEKn.



Pello Zubiria ostegunean atxilotu zuten.

EZ familiak eta ez abokatuak, oraindik ez dakite Pello Zubiria osasunez benetan nola dagoen. Zubiria ostegun goizaldean atxilotu zuten eta larunbatean ospitalean ingresatu zuten. Familiak astelehen arratsaldean izan zuen horren berri, komunikabideen bidez. Zubiriak *espondilitis anquilogipoyetika* du, eta oso tratamendu eta dieta zorrotza behar du. Atzo azken orduarate behintzat, Egunkariako aurreneko zuzendariak ospitalean inkomunikatuta jarraitzen zuen, ez familiak eta ez abokatuak ezin izan dute ikusi. Eguerdian, Fiskala eta Epailea Malores Etxeberria Zubiria-ren emaztearekin bildu ziren. Epailearen esanetan Zubiriak Audientzia Nazionalean deklaratu behar du eta Gregorio Marañon ospitaleko medikuek atzo gauean eman zioten baimena deklaratze.

Bestalde, ARGIA astekariak salatu du "Zubiriaren osasun egoeraz eta azken orduetako gertakizunez izaten ari den intoxikazio kanpaina" eta aldizkariak adierazi du Zubiriaren

gaixotasunak ez duela zer ikusirik buruko gaitzekin. ARGIA Jaurlaitza eta Ibarretxeren bitartekaritza eskatu du Zubiriari inkomunikazioa altxatzeko.

Egunotan Hernanin mobilizazioak egin dira Pello Zubiriaren egoera eta Egunkaria itxi izana salatu, eta gainerako atxilotuen askatasuna eskatzeko. Epailearen aurrean pasa diren 9etatik 4 fiantzaepean libre gelditu dira, eta besteak kartzelan sartu dituzte. Libre gelditu direnak: Martxelo Otamendi, Inma Gomila, Luis Goya eta Fermin Lazcano dira. Xabier Oleaga, Joan Mari Torrealde, Txema Auzmendi, Iñaki Uria eta Xabier Alegría kartzelan sartzeko agindu du Del Olmo epaileak.

Batzordea sortzeko bilera

Euskaldunon Egunkaria herriean batzordeak sortzen ari da proiektua bultzatzeko eta Hernanin gaur egingo da bilera horretarako: AEKn, 20:30etan (hasieran 19:30etan deitu da, baina, atzeratu egin da). □

HERNANI INSTITUTUA

Kalitate Legeari buruz hitz egingo du bihar Lontxo Oiartzabalek

HERNANI Hezkuntza eta Kalitateari buruzko hitzaldi zikloa egiten ari da. Bihar, osteguna, Lontxo Oiartzabal EAeko Eskola Kontseiluko Lehendakariak hitz egingo du Espainiko Gobernuak martxan jarri nahi duen *Kalitate Lege* berriari buruz. Lege berri honek 0-18 urte bitarteko hezkuntza sistema osoa harrapatzen du Hitzaldiaren izenburua: *Gure seme-alaben etorkizuna Kalitate Lege berriarekin*.

Institutuak guraso, irakasle eta ikasle guztiek gonbidatu ditu ekitaldira. Hitzaldia bihar da, 18:30etan, Biterin. □

ASTE SANTUA

SALOU

- Apirilaren 16tik 21era 4 gau: 175 euro
- Apirilaren 21etik 27ra (Pazko astea) 6 gau: 105 euro

Umeak: Lehenengoa DOAN; Bigarrena %50eko dtoa. Prezioak: pertsonako eta *** Hotela

LANDAK

Alokatzeko apartamentuak 4 gau: 150 eurotik

HERNANI BIDAIAK

Urbia etorb. 6 - Tel. 943 330049 - 330174 e-mail: hernanib@teleline.es

Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude, bolada baterako.

ALTZUETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

Asteartetik Larunbatera irekita

Altueta Sagardotegia S.L.
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani
Tel./Fax: 943 55 15 02
e-mail: altzueta@altzuetasagardotegia.com

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

TAT-ek 2002ko 97 tortura testimonio bildu ditu; horietatik hiru hernaniarrenak

■ Torturaren Aurkako Taldeak zenbait neurri proposatu ditu torturarik ez izateko eta horietako bat inkomunikazioa kentzea da.

TORTURAREN Aurkako Taldeak torturari buruz egin duen informearen berri eman du, Hernanin astelehenean egindako prentsurrekoan. Izaskun Gonzalez TATEko kideak emandako datuen arabera, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak 127 pertsona torturatu zituzten 2002-an. TATEk 97 testimonio liburu batean bildu ditu, beste zenbait ikerketa eta proposamenekin batera. Informe horretan, Guardia Zibilak atxilotutako Imanol Miner, Pedro Kano *Pitu* eta Oihane Bakedano hernaniarren tortura testigantza ere bildu ditu TAT-ek.

“Hilko nintzela uste nuen”
Imanol Miner Madrilen atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta berak kontatzen du, interrogatoriotan, momentu batean hil egingo zela uste zuela: “Eskuak eta hankak lotu, eta manta bat jarri zidaten bueltan, zelorekin lotuta. Lurrera bota eta ostikoak jo zizkidaten. Batek boltsa sartu zidan buruan eta beste batzuk nere arnasa konstatzen zuten... (...) Gero berriz boltsarekin hasi ziren, gorputza eta burua lehertu zitzakidian arte. Hilko nintzela uste nuen (...).

Pedro Kano *Pitu* Hernanin bertan atxilotu zuen Guardia Zibilak. Hona hemen bere tortura testigantzaren zati laburbat: “Poltsa jartzen zidaten burutik behera, ia konortea galdu



Izaskun Gonzalez eta Iñigo Elkoro, TATEko kideak prentsaurrean.

arte. (...) Neska laguna makil batekin biolatzen ari zutela esaten zidaten, eta hurrena berriz pistolaren kanoia sartu ziotela esaten zidaten (...).

Oihane Bakedano Loiolan atxilotu zuen Guardia Zibilak eta berak ere torturak salatu zituen: “Burua baldeka uretan sartu zidaten. Itotzeko zorian nagoela, atera eta berriro sartu. Larru gorrian jartzeko eskatu zidaten gero. Ni ukatu eta berak biluztu ninduten. Kulerotan utzi, eta gorputz guztian jo eta ikuitzen ninduten, eta biolatu egingo nindutela esan (...). Boltsa jarri zidaten batean, mireatu egin nintzen, eta horixe izan zen egun horietako momenturik onena”.

Forense eta medioen lana
Elkororen esanetan, torturi buruzko informe horrek, eta nazioarteko erakundeek egindakoek, erakusten dute forense-

ek ez dutela beren segimendu la-na ondo betetzen. Bestalde, TATEko kideak uste du komunikabideek tortura salaketak ia ixildu egiten dituztela, eta horrek torturatzeko inpunidade gehiago ematen duela.

Inkomunikazioa kendu
TATEk aurkeztutako informeak zenbait neurri proposatzen ditu, atxilotutako pertsonak torturarik ez jasotzeko garantzia izan dezaten. Neurrietako bat inkomunikazioa kentzea da, Lege Antiterroristak berekin duen 5 egunetako inkomunikazioak torturatzeko bidea jartzen duelako. TATEk atxilotaketa prozesuak argiak izateko bidek jartzea eskatzen du: bestek beste, interrogatorioetan bideo-kamerak jartzeko, familiak jakitea atxilotua non dagoen, konfiantzazko abokatu eta forenseen aukera izatea eta torturak argitu eta salatzea. □

JUDO -ALEBIN MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAK

Gipuzkoako Judo Txapelketako lehen fasean hernaniarrak fin ibili dira

■ Gipuzkoan 4 bailaratzen jokatu da lehen fasea, hoietako bat Hernanin, joan den asteburuan ■ Finala apirilean da Donostian, eta 150 bat alebin sailkatu dira guztira.

GIPUZKOAKO txapelketako sailkapen fasea jokatu da joan den asteburuan, Hernaniko kirolegian. Guztira, 190 bat umek neurtu dituzte indarrak, horietatik 8 hernaniarrak: 34 kiloz azpitik Jon Zugasti eta Iñigo Diaz de Cerio; 38 kiloz azpitik, Iñaki Aldunzain eta Aitor Aranburu; 44 kiloz azpitik, Unai Elizalde; 52 kiloz azpitik, Mikel Gallego; 57 kiloz azpitik, Eki Jauregi; eta 57 kilotik gorakoetan, Urtzi Olano. Finalerako sailkatu dira Jon Zugasti, Iñigo Diaz de Cerio, Unai Elizalde, Mikel Gallego, Eki Jauregi eta Urtzi Olano. Finala apirilean jokatuko dute Donostian, Gipuzkoa



Txapelketan parte hartu duten hernaniar judoka gazteak.

guztiko 150 bat judoka gaztek. Hernanin judoa gora dijioa. Gaur egun 110 lagun badabil-

tza judoa ikasten. Hauetatik 85 gaztetxoak dira eta 25 inguru nagusiak. □

HITZ BITAN



Adarraga Memorialeko podiuma. Eider Aldabe ezkerrean.

✓ ATLETISMOA

Eider Aldabe 5garren Euskadiko txapelketan. Eider Aldabek denboraldi bikaina ari du eta joan den igandean 5garren egin zuen Eskolarteko Euskadiko txapelketan, Elgoibarren. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabako 73 korrak gaztek hartzutzen parte eta 8 lehenengoek osatuko dute Euskadiko selekzioa Espainiako Txapelketan. Hernaniarra bertan izango da beraz.

Eva Esnaola 3garren Zumaian. Zumaiko 19garren Lasterketa herrikoia jokatu zen igandean eta hernaniarrek postu onak egin zituzten berriz ere. Eva Esnaolak 3garren bukatu zuen 10.200 metroan. Aritz Irazu lehenengo izan zen bere adinean eta Jurgi Blanco ere txapeldun izan zen 3.000 metroan. Alebinetan Mikel Von Wichman izan zen hirugarren 1.250 metroan.

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Hernaniko gimnasta gazteak ondo. Otsailaren 16an jokatu ziren gimnasiako B mailako lehen fasesak Hernaniko kirolegian. Alebinetan, Langile 3garren gelditu zen eta buruz buru Idoia Arregi lehenengo eta Carmen Juanei 3garren. Infantiletan, Urumea 3garren gelditu zen eta Elizatxo 8garren. Buruz buru Nora Erroizenea lehenengo gelditu zen, Ainhoa Perez 2garren, Maialen Perez 7garren eta Gorane Iturralde 8garren. Hurrengo zita martxoaren 15ean Orion.

✓ MOLOTOFF IRRATIA

Egunkariaren itxieraren inguruan emisioa. Molotoff irratia musika bakarrik emititzen du azken aldiak, baina, Euskaldunon Egunkariaren kontrako operazioa dela-eta Arrosa irratiko Ostarteko Balkoia programa botako dute bihar 16:00etik aurrera.

✓ IPUIAK BITERIN

Beatriz Egizabal ipui kontatzen, bihar. Umeantzako ipuiak izango dira bihar, Biterin, Beatriz Egizabalen ahotik. Bi sesio izango dira: 3-4 urte artekoentzat 17:30etan, eta 5-7 urte artekoentzat 18:00etan. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaina: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Ambulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48
- 943 551793
- Gauzez: Chucla Kardaberaz 48
- 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

Geologian lizenziatura den eta Gizarte Hezkuntzak ikasten ari den neska batek klase partikularrak ematen ditu. ESO eta DBH maila. Esperientzia: 943 33 53 15

Komertziala behar da Donostialderako. Kotxa beharrezkoa. Deitu: 661 52 38 39

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENaren konbokatoria. Ezinbestekoak: Diplomatura edo lizenziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erresterba naturaletan lan egin eazu. Ezinbestekoak: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin eza zu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoak: Graduatua. ADOZ: 943 44 45 09

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu eazu. ADOZ: 943 44 45 09

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoak: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

UDALTZAIN bezala lan egin eza zu Udaletan. Datozen deialditarako. Ezinbestekoak: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialditarako. ADOZ: 943 444509

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoak: B.U.P. Datozen deialditarako. Presta zaitez: ADOZ: 943 44 45 09

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin eazu. ADOZ: 943 444509